

### Lagundu Korrikari

Geroz eta gutxiago falta da KORRIKAREN 22. edizioa martxan jartzeko. Dakizuen moduan, lan izugarria ari dira egiten antolaketa-lanetan dabilzanak. Zeuk ere lagundu eta zure aletxo ipini nahi duzu, baina ez dakizu nola? Bete ondorengo [formularioa](#), laguntza oro eskertua izango da eta!



### Martxoak 8

Emakumearen Nazioarteko Egunean ere, berdintasunaren aldarrikapena egin genuen ikastolan, mailaz mailako hainbat lanketaren bidez. Gure aldarriekin apaindu dugu ikastola, eta egindako hausnarketei esker indarrez errebindikatu dugu egunero dela M8!



### Teknologia berrien inguruko formakuntza

Teknologia berrien erabilera desegokiak ezagutu eta ekiditeko formakuntza saioak egin ditugu aste honetan ikastolan. Orain Prebentzioa elkartearen eskutik, gaia sakontasunean ezagutzeko aukera izan dute LH 6 eta DBH 2ko ikasleek, eta maila horietako gurasoei eskaintako saio interesgarria ere izan genuen asteazkenean. Etengabeko lanketan jarraituko dugu aurrerantzean ere!



### Birziklapen-saioak LH1en

Birziklapenaren inguruko saio interesgarria izan dugu LH1eko ikasleok San Markoseko Mankomunitatearen eskutik. Jolasen bitartez gauza bakoitza non birziklatu behar den ikasi dugu. Hemendik aurrera ikasitako hori praktikan jarriko dugu!! Gora birziklapena!!



### Euskadiko Orkestraren entsegua

Atzo goizean, Euskadiko orkestra entzutera joan ginen LH5eko ikasleok, H. Berlioz-en "Symphonie fantastique"-en entsaioa entzutera hain zuzen. Aukera polita eta aberasgarria izan zen.



### AGIFESen hitzaldiak

Aste honetan 5. mailako ikasleok buru osasunaren inguruko hitzaldietan parte hartu dugu, AGIFES elkartearen eskutik. Egin ditugun dinamiken eta elkarrizketen bidez, ongizate fisikoaz gain ongizate emozionala zaintzea izugarri garrantzitsua dela ulertu dugu.



### Arte tailerra LH6n

Plastika tailerrean egurrezko pintzekin aritu gara lanean. Bakoitzak bere irudimena martxan jarri, artelan bikainak sortu ditugul! Gustura aritu gara kola txuriarekin eskuak busti eta pintzak itsastean!! Erakusketa bat antolatu eta beste mailetako ikasleek gure lanak ikusteko aukera izan dute.



### Txikipedian sortzaile

Gaurkoan DBH 2. mailako ikasleok Txikipediarako lanean aritu gara. Ez da erronka makala izan jarri zaiguna! Txikipedian gure hizkuntzaren presentzia areagotu asmoz, emakume kirolarien biografiak soru ditugu, eta oso erabilia izan ohi den tresna hau euskaraz elikatzen aritu gara. Ondorengoek gure hizkuntzan topatuko dituzte guk sortutako lanak! Bejondeigula!




### Emakumeak Oholtzara

Foru Aldundiak antolatutako Kultura Eskola ekimenaren eskutik, Emakumeak Oholtzara proiektuaz gozatu ahal izan dugu DBH4ko ikasleok. Aste osoan zehar gelan lantzen aritu gara emakumearen presentzia nolakoa eta zenbatekoa den musikaren munduan. Lanketa honi amaiera ezin hobea eman diote Sara Zozia eta Sara Goxua artistek, musikaren munduan emakume zain leku duen ikusteaz eta hausnartzeaz gainera, beraiekin musika pintzatzen aritu baikara giro ezin hobean.



### OHARRAK / AGENDA:

- HH: Goizeko zaintzan aldatetako. [Zirkularra](#).
- HH4: Musika Eskolako bilera pedagogikoa. Martxoak 25. [Zirkularra](#).
- LH4: Patxi Zubizarreta idazlearekin solasaldia. Martxoak 17.
- LH6: Heziketa afektibo-sexualeko saioak. Martxoak 15, 16 eta 18.
- DBH1: Hurrengo ikasturteko aukeragaik. [Zirkularra](#).
- DBH2: Hurrengo ikasturteko aukeragaik. [Zirkularra](#).
- DBH3: Hurrengo ikasturteko aukeragaik. [Zirkularra](#).
- DBH4: Hurrengo ikasturteko aukeragaik aukeratzeko azken eguna: Martxoak 15.
- DBH2-4: 2. ebaluazioko buletinak [Alexian](#) ikusgai. Martxoak 16.
- DBH maila guztiak: Irteerak. Martxoak 14.
- Eskola Kirola: 14. jardunaldia. A eta B.
- Parketararak: Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. [Kartela](#). [Informazioa](#).
- Donostiaeuskaraz: Asteburuko [jarduerak](#) haurrentzat. Martxoak 11-13.
- Udaberriko egonaldiak [Zurriola Ikastolan](#): [Zirkularra](#).
- Ikastolen Elkarte: [Atzerriko egonaldiak](#). [Udaleku itxiak](#).



@zurriolartarte

Batxilergo modalitate eskaintza zabala:  
Ateak. Giza eta Gizarte Zientziak, Zientziak  
**Ate irekiak**  
Martxoak 24 - 17:30  
Izen ematea: [www.zurriolaikastola.eus](http://www.zurriolaikastola.eus)

**IZAN NAHI**  
EKAI  
Lanbide Heziketa  
Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza zikloa  
zurriola ikastola

